

Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusteko eta ondoren». Hau da persona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

De dioses y hombres

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Des hommes et des dieux.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 120 min.

HERRIALDEA: Frantzia.

ZUZENDARIA: Xavier Beauvois.

AKTORE-ZERRENDA: Lambert Wilson, Michael, Lonsdale, Olivier Rabourdin, Philippe Laudenbach, Jacques Herlin, Loïc Pichon, Xavier Maly, Jean-Marie Frin, Abdelhafid Metalsi, Sabrina Ouazani, Farid Larbi, Adel Bercherif, Goran Kostic.

EKOIZPEN-ETXEA: Why not productions / France 3 Cinéma.

Sinopsia

90 hamarkadan Frantziako zortzi fraide zistertar anaia musulmanekin harmonian bizi dira Argeliako mendietan kokatutako monastegi batean. Hala ere, piskanaka indarkeria eta beldurra gailentzen ari dira bertan. Inguratzen dituzten mehatxuak handiagotzen ari diren arren, edonola bertan geratzeko fraideen erabakia gero eta sendoagoa da egunetik egunera.

Gaiak

Bizitzaren zentzua, kontzientzia, erlijioa

Bizitzaren zentzua. Pelikulak erakusten digu fedearen, konpromisoaren eta konfiantzaren balioa eta hauen zeregina bizitzari zentzua emateko orduan.

Kontzientzia. Pelikulako fraideek beren kontzientziari entzun beharko diote alde egiteko edo geratzeko erabakia hartzerakoan beren bizitza arriskuan dagoela jakinda.

Erljioa. Erljio desberdineko pertsonen arteko bizikidetzak baketsua erakusten du pelikulak eta baita nola erlijioa bizitzeko modu desberdinek arriskuan jartzen duten bizikidetzak hori ere.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Bizitzaren zentzuari buruz: Zein da bizitzaren zentzua? Harremanik ba al du konpromisoarekin? Fedea erlijio kontzeptu soila al da? Zein harreman dago fedearen eta konfiantzaren artean?
- Kontzientziari buruz: Zer da kontzientziari entzutea? Zein zeregin dauka erabakiak hartzerakoan? Erraza al da kontzientziari entzutea eta ondoren jokatzea?
- Erljioari buruz: Posible al da erlijioen arteko elkarrizketa? Erljio onak eta txarrak al daude?


...pelikula ikusi ondoren

- Nolakoa da fraideen erabakitze-prozesua? Garbi al daukate hasieratik? Nola sentitzen dira? Zer baloratzen dute erabakia hartzeko?
- «Alde egitea hiltzea da. Geratu egingo naiz». «Geure zeregina hemen dago, guztion anaia izatea da». Zein da beren konpromisoa? Norekiko hartzen dute konpromisoa?
- Nola bizi dute beren erlijio-fedea pelikulako pertsonaiek? Zein eragin dauka harremanetan? Ba al da gorrotorik? Ba al da maitasunik? Erljioak ala pertsonak dira arazoa?

Pello Sarasuaren laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

De dioses y hombres



baketik

943-251005

www.baketik.org

baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA
Bakergitza eta Elakidetzarako Sekretaria General para la Paz y la Convivencia
Itas-kaniza Nagusia Dirección de Víctimas y Derechos Humanos
Bakimena eta Giza Eskubideen Zuzendaritza